

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, MUNGIAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 27an Mungiako Udalaren eta bere tokiko erakunde autonomoen eta sozietate publikoen ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldikoa.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak bai tokiko erakunde autonomoek eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dutela** 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen 3 kontratu oker bideratu diren (Udalean hornidura elektrikoa eta beste bi hornidura kontratu Astiunerako Udal Erakundea erakunde autonomoan).

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du kasu guztietarako, nahiz zenbait doiketa azaleratu dituen Udalaren Diruzaintza Geldikina 1,2 milioi euroan murrizarazi dutenak; berebat, egoeraren balantzean ez da erregistratu Udalak erositako lursailen balioa, Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legean finkatutako nahitaezko lagapen betebeharraren indarrez. Gainera, Kontu Orokorraren oroitidazkiak ez du Kontuetan eragina izan zezakeen kontingentzia bati buruzko informaziorik jasotzen, ondarezko erantzukizunaren erreklamazio batetik eratorritakoa.

**Finantza egoerari** dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak **egoera ekonomiko osasuntsua** erakusten duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, Udalak eta mendeko organismo era erakundeek 2015ean **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dutela.**